

## ERAKUNDEAREN DATUAK

<b>1. Erakundearen izena:</b>	MONDRAGON Koop. E.
<b>2. Sektorea:</b>	Zerbitzuak
<b>3. Langile kopurua:</b>	48
<b>4. Webgunea:</b>	<a href="http://www.mondragon-corporation.com">www.mondragon-corporation.com</a>
<b>5. Erakundearen jardueraren deskribapena:</b> (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	MONDRAGON Koop. E. MONDRAGON Korporazioaren zerbitzu zentrala da - Zentro Korporatiboa- eta MONDRAGON Korporazioa osatzen duten kooperatibei eta Korporazioa egituratzen duten organoei laguntza ematen die hainbat arlotan: enpresa sustapena, planifikazioa eta kontrola, lankidetzarako finantza erreminten eta bestelako baliabide korporatiboen kudeaketa, diruzaintza, arlo juridikoa, organo korporatiboen administrazioa, heziketa kooperatiboa, berrikuntza eta teknologia, gestio soziala, komunikazioa, kanpo harremanak, nazioartekotze eragiketak, hedapen kooperatiboa, etab. MONDRAGON Korporazioaren irudia eta ordezkaritza ere MONDRAGON Koop. E.-k kudeatzen ditu.

## Harremanetarako datuak


<b>Solaskidearen izen-abizenak:</b>	Ander Etxeberria Otadui
<b>Helbide elektronikoa:</b>	<a href="mailto:aetxeberrria@mondragoncorporation.com">aetxeberrria@mondragoncorporation.com</a>
<b>Telefonoa:</b>	688 712 570

## PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

<b>1. Praktika onaren titulua:</b>	MONDRAGON-MU saria: ikasketa amaierako lanetan (IAL) euskaraz sortutako lanak saritzea.
<b>2. Praktika onaren azalpena:</b>  Zer da? Zertan datza?  Nondik dator?  Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Funtsezkoa da lan mundura euskaratik iristen den gazteak etenik ez izatea hizkuntzari dagokionez. IALak zubi aparta dira ikasketen eta lanaren artean. Horregatik, estrategikoa da zubi horretan euskaraz egitea. IAL sariak (ere) pizgarri izan nahi du Mondragon Unibertsitateko ikaslearentzat eta MONDRAGONeko kooperatibentzat lan munduan euskara normalizatzeko.</p> <p>Bi lan onenak saritzen ditugu (diru kopurua).</p> <p>Hasierako edizioetan IAL kopuruari erreparatzen bagenion batik bat, aurrerago IALetan euskararen kalitatea hobetzeari ere garrantzia eman genion.</p> <p>Hau horrela, azken ikasturteetan, IALetan euskararen gaitasuna eta kalitatea hobetzeko formazio planak zehaztu eta formazio saioak eman genien bai unibertsitateko ikasleei eta bai kooperatibetako tutoreei.</p> <p>Dagoeneko 13. edizioan gaude eta erreferente bat sortu dugu MUko ikasleen artean eta enpresetako pertsonal departamentuen artean. Edonola ere, grafikoak erakusten duenez, kopuruek gora eta behera egiten dute urte batetik bestera eta behar duguna gora egitea da. Horregatik, sariak potentzialitate handiagoa duela sinetsita, 2023an ikasleetan (eta MUn) eta kooperatibetako tutoreetan (eta kooperatibetan orokorrean) eragin behar dugu.</p>

## PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)



KUDEAKETA AURRERATUA  
**EUSKALIT**  
 GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
 POLITIKA SAILA  
 DEPARTAMENTO DE CULTURA  
 Y POLITICA LINGÜÍSTICA